

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 266.271 euroko urte anitzeko gastua egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak Irunberri, Erronkari eta Otsagabiko interpretazio-zentroetarako

*2018. eta 2019. urteetan baliabide horiek kudeatzeko lizitazioa egingo da*

Asteazkena, 2017.eko urriak 4

Nafarroako Gobernuak 266.271,14 euroko urte anitzeko gastua egiteko baimena onartu du gaurko bilkuran, Irunberri, Erronkari eta Otsagabiko interpretazio-zentroen kudeaketa lizitatzeko. Barne hartzen da azken bi herri horietako turismo-bulegoen arreta. Kontratuan 2018. urtea ere barne hartzen da, 2019an luzatzeko aukerarekin.

Kopuru horretatik, 108.500,70 euro Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiak finantzatuko ditu, eta aipatutako turismo-bulegoetarako izango da. Gainerakoa Landa Garapeneko, Toki Administrazio eta Ingurumeneko Departamentuak hartuko du bere gain.

Zentroen arabera, finantzazioa honela banatuko da: 62.998,44 € Irunberriko interpretazio-zentrorako eta 101.636,35 Erronkari eta Otsagabiko zentro bakoitzerako.